# Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 47. bilera
## 47ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena:**<br>Convoca: | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua:**<br>Fecha, lugar y hora | **2011ko uztailaren 21**/ 21 de julio de 2010<br>**Cristina Eneako Kapera** / Capilla de Cristina Enea<br>**18:30etan** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua:**<br>Hora de finalización: | **21:00tan /** A las **21:00** horas |
| **Harremanetarako pertsona:**<br>Persona de contacto: | Onintza Andrés (Haizea Ikerketa S.L.) |
| **Telefonoa:**<br>Teléfono: | 943 392229 |
| **Helbide elektronikoa**<br>Correo electrónico | haizea@haizeaikerketa.com |
| **Gai-zerrrenda:**<br>Orden del día | **1. Zinegotzi berriaren aurkezpena**<br>**2. Akten onarpena**<br>**3. Donostiako hondartzetako ingurumen kudeaketa sistemaren 2010. urteko ingurumen adierazpena**<br>**4. Tokiko Ekintza Planaren 2010eko ebaluazio txostenaren aurkezpena**<br>**5. Donostiako Iraunkortasun Txostena 2010aren aurkezpena**<br>**6. Norberak lekarkeena**<br><br>1. Presentación del nuevo concejal<br>2. Aprobación de actas<br>3. Declaración ambiental del SGA de las playas de Donostia-San Sebastián año 2010<br>4. Informe de Evaluación del Plan de Acción Local 2010<br>5. La presentación del recientemente publicado Informe de Sostenibilidad de Donostia-San Sebastián<br>**6.** Ruegos y preguntas |
| **Parte hartu dute:**<br>8 IAKeko kidek jarraian adierazten direnez gain: ingurumen zinegotzia, | **Asistieron:**<br>8 personas integrantes del CAMA, además del concejal delegado de medio ambiente, 2 representantes del cuerpo |

| | |
|---|---|
| 2 udal ordezkari tekniko, idazkaritza teknikoko 2 ordekari eta ponentzia azaldu duten aholkularitza eta entitateko 4 ordezkari<br>**Etorri ez direlako desenkusatu dira:**<br>Mikel Goñi de Kutxaespacio | técnico municipal, 2 personas de la asesoría técnica y 4 representantes de la consultora y entidad que presentaban ponencia<br>**Excusaron su asistencia:**<br>Mikel Goñi de Kutxaespacio |

**Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak** /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria**/ Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

  **Asier Jaka** (BILDU. Ingurugiro Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab/** Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

  **SEO BIRDLIFE DONOSTI** (Josefi Paz)
  **SEO BIRDLIFE DONOSTI** (Maite Eizagirre)
  **EGUZKI** (Juan Mª Beldarrain)
  **EMAUS** (Begoña Cabaleiro)
  **FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA** (Txema Hernandez)
  **HARITZALDE** (Marko Sierra)
  **AZTI** (Raúl Castro)

**Udal Teknikariak /** Técnicos municipales

**Victoria Iglesias** (Ingurumen Saileko Zuzendaria/ Directora del Departamento de Medio Ambiente)
**Ana Juaristi** (Aldaketa Klimatikoa eta Tokiko Agenda 21eko Zerbitzu burua/ Jefa del Servicio de Cambio Climático y Agenda Local 21)

**Hizlariak eta hauen laguntzaileak**/ Ponentes y acompañantes:

**GFA/DFG** (Iker Zubimendi)
**Minuartia-Enea** (Ainhoa Gea)
**Minuartia-Enea** (Eider Larrañaga)

**Idazkaritza Teknikoa** / Secretaría Técnica

**Haizea Ikerketa S.L.** (Maider Etxaide)
**Haizea Ikerketa S.L.** (Onintza Andrés)

| | |
|---|---|
| Aholkularitza teknikoak saioa irekitzen du eta 47. Bileraren deialdiaren atzerapeneri buruzko azalpenak ematen ditu, izan ere, udal hauteskundeak ospatu ondoren ingurumen zinegotzi berriaren eta IAKaren lehendakari dena izendatu arte itxaron baita gaurko bileran bere aurkezpen ofiziala egin ahal izateko. | La Asesoría Técnica abre la sesión y explica el retraso en la convocatoria de la 47ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente, basando la argumentación en el hecho de que tras la celebración de las elecciones municipales se ha esperado al nombramiento del nuevo concejal de medio ambiente y presidente del CAMA, para poder realizar su presentación oficial en la presente sesión. |
| Gai zerrendan egon den aldaketaren berri ematen da. "2010 tokiko ekintza planaren ebaluazio txostenaren" aurkezpena hirugarren puntuan egingo da | Se informa sobre el cambio en el orden del día. La presentación del "Informe de Evaluación del Plan de Acción Local 2010" se realizará en tercer lugar. |
| 1. **Zinegotzi berriaren aurkezpena** | 1**. Presentación del nuevo concejal** |
| Asier Jakak ongietorria ematen die etorritakoei eta partehartzea eskertzen du.<br>Partehartzearen aldeko apustua erronkak eta helburuak gainditzeko funtsezkoa dela azpimarratzen du.<br>BILDUk ingurumenari eta garapen jasangarriari ematen dion garrantzia azpimarratzen du eta eransten du bere helburuetako bat Ingurumen Aholku Kontseiluaren papera indartzea dela. | Asier Jaka da la bienvenida a los presentes y agradece la participación.<br>Subraya que la apuesta por la participación es fundamental de cara a superar los retos y objetivos.<br>Señala la importancia que BILDU da al medio ambiente y al desarrollo sostenible, y manifiesta que uno de los objetivos es reforzar el papel del Consejo Asesor de Medio Ambiente. |
| **2. Akten onarpena** | **2. Aprobación de actas** |
| Iragandako bileretan zinegotzia egon ez zela argudiatuz, Eguzkiko ordezkariak interesekoak jotzen dituen zenbait arlo gogorarazten ditu. | Argumentando que el nuevo concejal no estuvo presente en las reuniones pasadas, el representante de Eguzki recapitula algunos puntos que considera de interés: |
| 45. bileran, biribilgunetik Uliako merendalekurako bidea trafikoari zabaltzea aurreikusita ote zegoen galdetu zuenean, erantzun zitzaion erreskate edo larrialdi ibilgailuek soilik izango zutela igarotzeko baimena. | • En la reunión nº 45, a su pregunta de si se tenía previsto abrir al tráfico el paso desde la rotonda hasta el merendero de Ulia, se respondió que únicamente tendrían acceso los |

| | |
|---|---|
| Aitzitik, ikusi du ibilgailu pribatuak inolako debekurik gabe ibiltzen direla bertan.<br>Eskatzen du, udal gobernu berria ados baldin badago, hartu zen konpromiso hori bete dadila agin dezala.<br>Gogorarazten du IAK biltzen den lekuari buruzko eztabaida hainbat alditan egin dela. Zenbait partaidek nahiago dute bilerak Cristina Enean ez ospatzea toki horrek dituen, besteak beste, iluntasun, euri eta iristeko eragozpenak direla eta. Hain zuzen ere, arrazoi horiek izan baitziren bilerak Udaletxean ospatzen hasteko arrazoia.<br>Aholkularitza Teknikoak erantzuten du gai hori den zentzuan ez dela orain arte jaso. Egia da, negu garaian, lehen aipatutako arrazoi berak direla eta, IAKaren bilerak Udaletxean ospatzea erabaki zela eta errespetatutako neurria izan zela baina erabaki hori ez zen urtearen gainerako aroei begira hartu.<br>Bere proposamen gisa eskatzen du azalpenak luzeak izan ez daitezela eztabaidarako denbora murrizten dutelako. Bere aburuz, azalpen luzeak IAKeko partehartze txikiaren arrazoietako bat izango dira seguraski.<br>Azkenik, aurreko hiru delegatuek, behin kargua utzi ondoren bileretara etortzeari utzi egin diote eta horrek haien ingurumenarekiko sentikotasunaren gaineko zalantzak sortarazten dituela adierazten du. Zinegotzi berriari bere partidoko ordezkaria etorkizuneko agintaldietan IAKen bileretara etor dadila eskatzen dio.<br>Aholkularitza Teknikoak jakinarazten du Seo/Birdlife-eko ordezkariak manifestu bat ekarri dutela eta, laburbilduz, IAKari eskabidea luzatzen diotela Donostiako udalerriko Segurtasun Gunean dauden ehiza postuak aztertzeko ekimenari laguntza eman diezaiola, ehiza jardueraren abolizio osoa Ulia bezalako eremu hain sentikorretan sustatuz. | vehículos de rescate o emergencia.<br>Sin embargo, ha visto cómo los vehículos privados circulan por este lugar sin ninguna restricción.<br>Solicita que, si el nuevo gobierno municipal está de acuerdo, se haga cumplir el compromiso adquirido en este sentido.<br>• Recuerda que el lugar de celebración del CAMA ha sido una cuestión debatida en varias ocasiones. Algunos componentes prefieren que las reuniones no se celebren en Cristina Enea debido a las inconveniencias derivadas de la oscuridad del lugar, la lluvía, problemas de accesibilidad, etc. Recuerda que fueron esas las razones por las que se decidió celebrar las reuniones en el Ayuntamiento.<br>La Asesoría Técnica responde que hasta ahora no se ha recogido esa cuestión en la manera en la que se ha señalado. Es cierto que en periodo invernal, por las mismas razones antes expuestas, se decidió celebrar las reuniones del CAMA en el Ayuntamiento, y ha sido una medida respetada, pero esta decisión no incumbe al resto del año.<br>• Solicita como propuesta particular que se asegure que las exposiciones no sean prolongadas, ya que reducen el tiempo de debate y discusión. Opina que las largas exposiciones sean probablemente una de las razones de baja participación del CAMA.<br>• Por último, se lamenta de que los tres anteriores delegados, una vez han dejado el cargo, han dejado de asistir a las reuniones del CAMA, lo cual genera desconfianza en cuanto a la sensibilidad que puedan tener sobre el medio ambiente. Invita al nuevo concejal que el delegado de su partido asista a las reuniones del CAMA en futuros ejercicios. |

| | |
|---|---|
| Idazkaritza Teknikoak jakinarazten du txostena IAKeko gainontzeko kideei helaraziko zaiela, haiek hurrengo bileran beren jarrera adierazteko aukera izan dezaten.<br><br>44 eta 45. Aktak onartzen dira.<br><br>**3. Tokiko Ekintza Planaren 2010eko ebaluazio txostenaren aurkezpena**<br><br>Iker Zubimendik Tokiko Ekintza Plan 21en ebaluazioa Foru Aldundiaren Behatokiak urtero eskaintzen duen programaren baitan kokatzen du. Programa horretan parte hartzeak udalerriei kanpo aholkularitza bat edukitzeko aukera ematen die, zeinak, metodologia amankomun bat aplikatuz, irizpideetan homogeneotasuna eta ebaluazioan objektibotasuna eskaintzen baitu.<br>Donostiako udala da Gipuzkoako zerbitzu honetan 2005 hasiera urte bertatik parte hartu duen 6 udalerrietako bat.<br>Ana Juaristik adierazten du zerbitzu honek eskaintzen duen kanpotiko ikuspegiak ebaluazioari sineskortasun handiago ematen diola.<br>Minuartia-Eneako hizlariek jarraitu den metodologia eta lortutako emaitzak laburki azaltzen dituzte. 2010ean zehar Plana zein mailan ezarri den azaltzen da. Batez besteko ezarpen balioei erreparatuz gero, irakurketa positiboa da, urteko hazkuntza erritmo onean egin da eta Ildo Estrategikoen exekuzioa dinamismo onean burutu da.<br>Klima Aldaketaren Aurkako Planaren ebaluazioaren emaitzak azaltzen dira, zeina Agenda 21aren II Ekintza Planaren ebaluzioarekin batera egiten baita, AKAPa Agenda 21aren Planean sartuta dagoen neurrian.<br>Ekintza bakoitzaren ezarpen maila xehetasunez | La Asesoría Técnica informa que las representantes de Seo/BirdLife han traido un manifiesto, y que en resumen, solicitan al CAMA que apoye la iniciativa de revisión de los puestos de caza situadas en la Zona de Seguridad del municipio de Donostia-San Sebastián promoviendo la abolición total de la actividad cinegética en zonas tan sensibles como el Monte Ulía.<br>La Secretaría Técnica informa que se trasladará el documento al resto de componentes del CAMA para que puedan expresar su postura en la siguiente reunión.<br><br>Se aprueban las actas nº 44 y 45.<br><br>**3. Informe de Evaluación del Plan de Acción Local 2010**<br><br>Iker Zubimendi enmarca la Evaluación del Plan de Acción Local 21 en el programa que cada año ofrece el Observatorio de AL21 de la Diputación Foral. La participación en este programa facilita a los municipios una asistencia externa que, aplicando una metodología común, aporta homogeneidad de criterios y objetividad en la evaluación.<br>El de Donostia- San Sebastián es uno de los 6 ayuntamientos gipuzcoanos que ha participado en este servicio desde su inicio en el año 2005.<br><br>Ana Juaristi asevera que la visión externa que ofrece este servicio confiere mayor credibilidad a la evaluación.<br><br>Las ponentes de Minuartia-Enea explican brevemente la metodología seguida y los resultados obtenidos. Se presenta el grado de |

| | |
|---|---|
| jasotzen duen txosten hori Udaletxeko web orrian epe laburrean zintzilikatuko da.<br><br>Konturatzen da aplikazioak Aalborgeko konpromisoak betetzen noraino laguntzen den azaltzen duen txosten bat erauzteko aukera ematen duela eta, baita TA21en iunguruko barne koordinazioa eta herritarren partaidetza mekanismoak galdetegi sinpletu bat medio aztertzeko aukera ere. Donostiaren emaitzak oso positiboak dira eta arras nabarmentzekoak beste udalerrien aldean.<br><br>Etorritakoek ez dute galderarik egin eta, beraz, aurkezpena bukatutzat jotzen da<br><br>**4. Donostiako hondartzetako ingurumen kudeaketa sistema 2010. urteko ingurumen adierazpena**<br><br>Urteroko ekimena den neurrian eta prozedura jada ezaguna de neurrian, Ana Juaristik lortutako emaitzak laburbiltzen ditu.<br><br>Energia eta ur kontsumoan ipinitako helburuak lortu direla ondorioztatzen da. Hondakinei dagokienean, lortu da helburuak %50ean erdiestea, zeren eta, nahiz eta egia izan kabinetan jaso den paper kopurua handitu egin dela, gaika bildu den guztizko kopurua txikitu baita.<br><br>Eguzkiko ordezkariak aipatzen du bere iritziz 2011ean aurreko ekitaldietan baino paperontzi gutxiago ipini direla. Ana Juaristik erantzuten du ikertu egingo dela.<br><br>2011ko udarari begira, lortutako emaitzen araberako ingurumen programa bat ezarri delaren | implementación del Plan durante el 2010, y se resume que con respecto a los valores de implantación promedio, la lectura es positiva, con un buen ritmo de incremento anual y buen dinamismo en la ejecución de las Líneas Estratégicas. Se explican los resultados de la evaluación del Plan de Lucha contra el Cambio Climático que se realiza de manera conjunta a la evaluación del Plan de Acción II de Agenda 21 al estar el PLCC integrado en el de Agenda 21.<br>El informe que recoge en detalle el grado de implantación de cada una de las acciones se colgará en breve en la página web del Ayuntamiento.<br><br>Se da cuenta de que la aplicación permite extraer un informe de cómo se contribuye a los compromisos Aalborg y analizar mediante un cuestionario simplicado los mecanismos de coordinación interna en torno a la AL21 así como los de participación ciudadana. Los resultados de Donostia- San Sebastían son muy positivos, y muy destacables en comparación a otros municipios.<br><br>No ha habido preguntas por parte de los asistentes, por lo que se da por finalizada la presentación.<br><br>4**. Declaración ambiental del SGA de las playas de Donostia-San Sebastián año 2010**<br><br>Al tratarse de una iniciativa anual, y siendo conocido el procedimiento a estas alturas, Ana Juaristi expone con brevedad los resultados obtenidos.<br><br>Se concluye que se han conseguido los objetivos propuestos en materia de consumo energético y |

| | |
|---|---|
| berri ematen da.<br>Erabiltzaileen sentikortzea garrantzizkotzat jotzen da. Azaltzen da Cristina Enea Fundazioak eta Surfrider Fundazioak helburu hori duten kanpainak burutu dituztela.<br>Ur kontsumoari dagokionean, jardunbide egokien egitarau bat ezarriko da kabinetan. Hondartza desberdinetan aplikatzekoak diren neurri desberdinak azaltzen dira.<br><br>Eguzkiko ordezkariak galdetzen du Conchatik toldoak kentzeari buruzko baloraziorik jaso ote den. Ana Juaristik erantzuten du ez dela gai horri buruzko inolako pertzepzio inkestarik egin.<br><br>Hondakinen gaira itzulita, Eguzkiko ordezkariak sentikortze kanpainak burutu ziren uneari buruz galdetzen du. Cristina Eneako ordezkariak Fundazioak ekimen honen esparruan burutu diren jarduerak laburbiltzen ditu, mezuak zabaltzeko egin zen komikien banaketa nabarmenduz eta azaltzen du neurriak ostirale batean eta larunbata arratsalde batean burutu zirela.<br>Eguzkiko ordezkariak hondakinen sorkuntzari buruzko adierazleak jatorri desberdinak kontabilizatu beharko lituzkeela uste du eta, bere aburuz, goizean sortzen diren hondakinak arratsaldean sortzen direnetatik desberdinak dira kopuru zein motan. Horrek zein publiko motara zuzendu beharra dagoen iradokitzen du: nerabeak, hauek beren aisialdi motagatik ezagun baitira.<br>Cristina Eneako ordezkariak azaltzen du kanpaina publiko orokorrari zuzendutakoa dela, hots, famili publikoari, honek hondartzetako %90 okupatzen baitu. Eginiko iradokizuna eskertzen du eta, nerabeak, haiengana zuzentzeko zailak diren arren, hurrengo kanpainetan kontutan izango direla erantzuten du. | de agua. En el tema de residuos se ha logrado cumplir los objetivos solo en un 50%. ya que si bien es cierto que la cantidad de papel recogido en cabinas se ha incrementado, la cantidad total recogida selectivamente ha disminuido.<br><br>El representante de Eguzki indica que a su parecer en 2011 se han instalado menos papeleras que en ejercicios anteriores.. Ana Juaristi responde que se indagará.<br><br>Se da cuenta de que se ha establecido un programa ambiental para el verano de 2011 en función de los resultados obtenidos.<br>• Se considera importante la sensibilización a los usuarios. Se explica que la Fundación Cristina Enea y la Fundación Surfrider han realizado campañas de sensibilización en este sentido.<br>• En relación con el consumo de agua se establecerá un programa de buenas prácticas en las cabinas. Se explican las medidas a aplicar en las distintas playas.<br><br>El representante de Eguzki pregunta si se ha recogido alguna valoración sobre la retirada de toldos de La Concha. Ana Juaristi responde que no se ha realizado ninguna encuesta de percepción al respecto.<br><br>Retornando al tema de residuos, el representante de Eguzki pregunta sobre el momento en que se llevaron a cabo las campañas de sensibilización.<br>El representante de Cristina Enea resume las actuaciones que la Fundación ha realizado en el marco de esta iniciativa, destacando el reparto de cómics realizado para difundir los mensajes, y explica que las medidas se llevaron a cabo un viernes y un sábado por la tarde. |

| | |
|---|---|
| Aztiko ordezkariak Cristina Eneako Fundazioari eskerrak ematen dizkio komikiaren kalitateagatik eta sentikortzeak duen zailtasunaz ohartuta, aurrera jarrai dezatela animatzen ditu.<br><br>Eguzkiko ordezkariak eremu oso sentikor bat dagoela jakinarazten du, hots, kaiko espigoia/molla, Nautikoaren ondoan dagoena, plastikozko flotagarri asko bildu ohi dituena. Bere ustez arazo horren inguruan zerbait egin beharko litzateke, ingurumenaren aldetik zein aisiaren aldetik. Eransten du, ikuspuntu koantitatibotik hain nabarmena ez den arren Paseo Berrian antzeko zerbait gertatzen dela.<br><br>SEO/BirdLifeko ordezakariak aurreko urtean baino plastiko gehiago ikusi ote den galdetzen duenean Eguzkiko ordezkariak erantzuten du, alderantziz, gutxiago dagoela bere aburuz. Aztiko ordezkariak argitzen du gutxitzeak ekaina-uztailan egin duen eguraldi txarraren ondorio datekeela.<br><br>Eguzkiko ordezkariak azaltzen du erabiltzaileek hondartza uzten duten eta kamioiak sartzen diren aldian, gaueko 20:30ak edo 21:00ak eta 22:00ak bitarte, kaioek egunez hondakinak jaso dituzten zabor poltsak puskatzen dituztela eta hondartzan zehar barreiatzen. Eransten du ez legokeela gaizki kaioen kopuru "ez naturalaren" inguruko eztabaida irekitzea<br><br>**5. Berriki argitaraturiko Donostiako Iraunkortasun Txostena 2010aren aurkezpena** | El representate de Eguzki opina que el indicador sobre la generación de residuos debería contabilizar los distintos orígenes, y apunta que desde su punto de vista, los residuos que se generan durante la mañana difieren tanto en cantidad como en tipología de los que se generan durante la tarde. Esto da una idea del tipo de público hacia el que hay que dirigirse: el adolescente, que viene marcado por su modo de ocio.<br>El representante de Cristina Enea explica que la campaña va dirigida al público en general, esto es, al público familiar que es quién ocupa el 90% de las playas. Agracede la sugerencia realizada, y si bien el público adolescente es muy dificil de abordar, responde que se tendrá en cuenta para próximas campañas.<br><br>El representante de Azti fecilita a la Fundación Cristina Enea por la calidad del cómic y consciente de la dificultad que supone la sensibilización, les anima a seguir adelante.<br><br>El representante de Eguzki informa de que hay una zona muy sensible, el espigón del muelle, junto al Naútico, donde se acumulan muchos flotantes de plástico en el agua. Considera que habría que realizar algún tipo de intervención al respecto, tanto desde el punto de vista ambiental como desde el punto de vista del ocio. Añade que si bien cuantitativamente no es tan llamativo, también ocurre algo similiar en el Paseo Nuevo.<br><br>A la pregunta de la representante de SEO/BirdLife sobre si se ha advertido más plástico que el año pasado, el representante de Eguzki responde que al contrario, opina que hay menos. El representante de Azti aclara que la disminución |

Cristina Eneako ordezkariak eskertzen du Txostenean parte hatu duten pertsona eta instituzio desberdinek emandako laguntzagatik.

Joan den argitaraldian eginiko refundidoaren ondoren egun 49 adierazle daudela (ingurumen, gizarte eta ekonomiari dagozkionak) azaltzen du. Urte bat gehiago, azken txostena Ingurumenaren Nazioarteko Egunean argitaratu zen eta orduandanik webean dago eskura.

Ondorio aipagarrienak aurkezten dira eta etorriktakoei noiznahi parte hartzeko aukera luzatzen zaie:

Partaidetza: Aztiko ordezkariak ez du ulertzen zergatik erabiltzen den IAKaren partaideen kopurua adierazle gisa, kopuru hori ez baita partaidetzaren adierazgarri. Bai Cristina Enea Fundazioko ordezkariak bai Ana Juaristik azaltzen dute arrazoia dela, hain zuzen ere, etorritakoen eta partaideen arteko alde hori ikus dadin.
Aztiko ordezkariak aipatzen du IAKeko bileran onartutako ekimenetako bat aktak webean zintzilikatzea izan zela. Ana Juaristik erantzuten du antolamendu arazo batzuek direla eta Udaletxeko web orriko ingurumen atala ez dela garatuta egon baina duela bi hilabetetik hona akta guztiak argitaraturik egon beharko luketela.
Aholkularitza Teknikoak azaltzen du gainontzeko partaideei ere jakinaraziko zaiela.
Hirigintza: azaltzen da lurzoru urbanizaezinaren jaitsiera benetakoa ez dela, baizik eta beste era batera kontabilizatu dela.
Haritzaldeko ordezkariak galdetzen du zergatik aukeratu den 2005 urtea abiapuntu gisa, aurreko urteei dagozkien datuak badauden neurrian.

podría estar relacionada con el tiempo que ha habido en junio-julio.

El representante de Eguzki expone que en el período en el que los usuarios dejan la playa y entran los camiones de recogida, entre las 20:30 o 21:00 y las 22:00 de la noche, las gaviotas rompen las bolsas de basura que contienen los restos que se han ido recogiendo durante el día y lo esparcen por toda la playa. Añade que no estaría mal abrir el debate sobre la necesidad o no de intervenir en el número "no natural" de gaviotas.

**5. Presentación del recientemente publicado Informe de Sostenibilidad de Donostia-San Sebastián**

El representante de la Fundación Cristina Enea agradece la colaboración de las distintas personas e instituciones en la elaboración del Informe.

Explica que tras el refundido de la pasada edición, actualmente se dispone de 49 indicadores (ambientales, sociales y económicos). Un año más, el último informe se publicó el Día Internacional del Medio Ambiente, y desde entonces está disponible en web.

Se presentan las conclusiones más destacables, y se da a los asistentes la posibilidad de intervenir en las ocasiones que estimen oportunos:

- Participación: el representante de Azti no entiende que se utilice como indicador el número de componentes del CAMA cuando la cifra no es representantiva de la participación. Tanto el representante de la Fundación Cristina Enea como Ana Juaristi explican que la razón es justamente para que se pueda ver la

| | |
|---|---|
| Cristina Eneako ordezkariak erantzuten du lehen Txostena urte horretakoa delako aukeratu dela.<br>Haritzaldeko ordezkariak uste du 5 urte oso garai laburra dela, Eguzkiko ordezkaria uste berekoa da, eta denboran askozaz hurrunago oraindik joango litzatekeela esaten du, adibidez 1991 urteraino, azken urteetan Europako beste hiri askotan ere ohikoa izan den urbanizatze prozesua behatu ahal izateko. Eransten du aireko argazkiek informazio askozaz errealago eta benetakoagoa eskain dezaketela udalerrian gertatutakoaz eta elkarlanerako laguntza eskaintzen du.<br>Eguzkiko ordezkariak gogorarazten du beste adierazle batzuetan lehenagoko urteetako datuak, 1995ekoak kasu, erabili direla.<br>Cristina Enea Fundazioko ordezkariak egokitzat jotzen du egindako ekarpena.<br>Lurzoru potentzialki kutsatuak eta kutsadura kentzea: Ihobek hornitutako adierazle berri bat. Azaltzen da deskontaminatutako lurzoruaren datuak datorren urtetik aurrera behera egingo duela, obrarik gabe lurzoruak ez baitira deskontaminatzen.<br>Biodibertsitatea: babestutako eremuen handitzea. 2007 eta 2008 bitarte azalera hau kalkulatzeko eran aldaketa egin zen. Kartografiaren aldaketa ere egin da.<br>Uste da seguraski argitalpen guztietan aldaketa honi buruzko azalpen laburren bat eman beharko litzatekeela irakurketa argitzearren.<br>Kutsadura akustikoa: datuak aurreko urtekoen berdinak dira zarata mapa eguneratu ez baita eta berau eguneratzeko eskaera egiten da.<br>Victoria Iglesiasek azaltzen du datorren urtean zarata mapa berri bat egongo dela.<br>Aire kalitatea: maila on edo oso onak mantentzen dira.<br>Seo/Birdlifeko ordezkariek adierazten dute | diferencia existente entre el número de componentes y el número de asistentes.<br>El representante de Azti señala que uno de las iniciativas aprobadas en reunión del CAMA fue la de colgar las actas en la web. Ana Juaristi responde que por una serie de problemas de nivel organizativo el apartado de medio ambiente de la web del Ayuntamiento no ha estado desarrollado, pero que desde hace 2 meses deberían de estar publicadas todas las actas.<br>Desde la Asesoría Técnica se explica que se informará al resto de componentes sobre esta cuestión.<br>• Urbanismo: se explica que el descenso real del suelo no urbanizable no es real, simplemente se ha contabilizado de otra manera.<br>El representante de Haritzalde pregunta sobre las razones por las que el punto de partida es el año 2005 dado que existen datos de años anteriores. El representante de Cristina Enea responde que es debido a que el primer Informe es de ese año.<br>El representante de Haritzalde considera que 5 años es un periodo muy pequeño, opinión compartida por el representante de Eguzki, y que se remontaría mucho más en el tiempo, por ejemplo al año 1991, para poder observar el proceso de urbanización, característico también de otras muchas ciudades europeas, que se ha dado en los últimos años. Añade que las fotografías aéreas pueden ofrecer una información mucho más real y certera de lo ocurrido en el municipio, y ofrece su ayuda para colaborar en esta tarea.<br>El representante de Eguzki recuerda que en otros indicadores sí se han empleado datos de años previos, como de 1995. |

| | |
|---|---|
| batzuetan Ategorrietan usain arraro bat antzematen dela.<br>Ana Juaristik azaltzen du usain bortitzeko aldiak izan direla eta jatorria izan dezaketen iturriak aztertu ondoren, hala nola, San Markos zabortegia eta LOIOLAko Ur Araztegia, uste dute usaina udalerriz kanpotik datorrela. Izan ere, eskumenak direla eta Eusko Jaurlaritza eta Hernaniko udalarekin lanean ari dira usain horiek nondik datozen jakiteko. Hernaniko paper fabrikaren isurkinak eta Urumeako kolektoreko gainontzeko hondakin urak banantzeko lanekin zerikusia izan dezakeela uste da.<br>Eguzkiko ordezkariak eransten du bitxia dela neguan salaketak jaso eta hilabete gutxira usaina arindu izana eta ez du uste kolektoreko lanak ia amaituta egotea denik horren arrazoia, baizik eta bere aburuz usain horiek sortzen ari zen enpresa gelditu delako izan da.<br>Ana Juaristik azaltzen du usaina neurtzeko azterketa bat egitea aurreikusita dagoela baina Añarbeko lanak amaitu arte itxaron nahi dela jatorria azken hau dela baztertzeko.<br>Mugikortasuna: Eguzkiko ordezkariaren aburuz elkarbizitzako bidegorriei buruzko datua zenbait pertsonentzako datu gogaikarri eta baita arriskutsua ere dela. Izan ere, datua aurreko edozein urtetan jasotakoa baino nabarmenki handiagoa da. Ez dago neurri horrekin ados eta gobernu berriari dei egiten dio bidegorri metro berriak galtzara, eta ez espaloia, okupatuz diseina daitezela, elkarbizitzako bidegorriak ahal den neurrian saihestuz. Zorionak ematen ditu Easo Enparantzako bidegorri zatia kendu izanagatik.<br>Eguzkiko ordezkariak aipatzen du urtero motorizazio indizea egonkor mantentzen dela, horrek esan nahi duelarik bidegorriak ez duela disuasio helburua betetzen. | El representante de la Fundación Cristina Enea considera buena la aportación realizada.<br>• Suelos potencialmente contaminados y descontaminación: un nuevo indicador propocionado por Ihobe. Se explica que probablemente el dato de suelos descontaminados disminuirá a partir del año que viene, añadiendo que sin obras los suelos no se descontaminan.<br>• Biodiversidad: incremento de zonas protegidas. De 2007 a 2008 hubo una modificación en el recuento de esta superficie. También ha habido modificación de la cartografía.<br>Se opina que tal vez se tendrían que explicar brevemente las razones del cambio en todas las publicaciones para aclarar la lectura.<br>• Contaminación acústica: los datos vuelven a ser los mismos porque no se ha actualizado el mapa de ruido. Se hace un llamamiento para que sea actualizado.<br>Victoria Iglesias explica que el año que viene habrá un nuevo mapa de ruido.<br>• Calidad del aire: se mantienen los niveles de bueno o muy bueno.<br>Las representantes de Seo/BirdLife manifiestan que algunas veces se nota un olor extraño en Ategorrieta.<br>Ana Juaristi explica que ha habido episodios de olores muy fuertes, y que tras revisar las posibles fuentes de origen, como el vertedero de San Marcos y la EDAR de Loiola, creen que el olor viene de fuera del municipio. De hecho, están trabajando por tema de competencias con el Gobierno Vasco y Ayuntamiento de Hernani para determinar de dónde provienen esos olores. Se cree que podrían tener relación con una obra de separación de los vertidos de la papelera de Hernani del resto de aguas |

| | |
|---|---|
| Cristina Eneako ordezkariak azaltzen du adierazlea matrikulazio berriei buruzkoa dela eta informazio hau ezin dela zuzenean lotu ibilgailu pribatuaren erabiltze mailarekin.<br>Haritzaldeko ordezkaria kexu da mugikortasun indizeetan oinezkoa kontabilizatzen ez delako, berau izanik bere iritziz bizikleta baino garrantzitsu eta jasangarriagoa.<br>Ana Juaristik eransten du bikaina litzatekeela banakera modalari buruzko urteroko informazioa edukitzea baina hori ezinezkoa da. Hala ere, oinezko banakera kontabilizatzeak duen garrantziarekin ados dagoela adierazten du, era horretara mugikortasuna banatzeko moduaren irudi askozaz fidelagoa lortuko litzatekeelako.<br>Azaltzen du ibilgailuen fluxua indize ona den arren, matrikulazio indizea erabiltzen hasi behar izan dutela zeren eta instalatutako ibilgailu fluxuaren neurgailuak ez baitira behar bezala funtzionatzen ari.<br>Ura: etxeetako ur erabilera zibilizatzea zintzilik dagoen kontua da.<br>Hondakin uren kudeaketa handitzearen arrazoia kanalizatutako euri urak araztegian tratatzen direla da.<br>Hondakinak: hondakinen bilketa %4 jaitsi den arren, birziklatzekoak diren hondakinen kopurua ere jaitsi egin da.<br>Eguzkiko ordezkariak aipatzen du gaika bildutako adierazlearen jaitsiera jarraia egon izanak atentzioa ematen duela, izan ere, zabortegira doan kopurua txikitzen baitoa. Cristina Enea Fundazioko ordezkariak erantzuten du lotura zuzenik ez dagoela zeren eta zabortegira etxekoak ez diren beste hondakin mota batzuk joaten baitira. Hain zuzen ere, datu banandduak eskatu omen dituztela baina ez zaiela informazio hori eman.<br>Eguzkiko ordezkariak aipatzen du Amaran | residuales del Colector del Urumea.<br>El representante de Eguzki añade que es curioso que a pocos meses de las denuncias registradas en invierno haya disminuido ese olor, y duda de que la razón haya sido porque las obras del colector están ya casi culminadas, y sugiere que más bien se inclina a creer que la empresa que estaba generando esos olores ha parado.<br>Ana Juaristi explica que está previsto realizar un estudio olfatométrico, pero se quiere esperar a que culminen las obras de Añarbe para descartar que ese sea el origen.<br>• Movilidad: El representante de Eguzki considera que es un dato molesto e incluso peligroso para algunas personas el que hace referencia a los bidegorris de convivencia, y es que el dato registrado es manifiestamente mayor que en cualquiera de los años anteriores. No comparte esta medida, y llama a la atención al nuevo gobierno municipal para que los nuevos metros de bidegorri se diseñen en la medida de lo posible ocupando la calzada y no la acera, evitando los bidegorris de convivencia. Felicita el haber quitado el tramo de bidegorri de la Plaza Easo.<br>El representante de Eguzki advierte que todos los años se mantiene el índice de motorización, indicador de que el bidegorri no cumple el objetivo de disuasión.<br>El representante de la Fundación Cristina Enea explica que el indicador es refente a las nuevas matriculaciones, y que esta información no se puede traducir directamente en el uso que se hace del vehículo privado.<br>El representante de Haritzalde se lamenta de que en los índices de movilidad no se contabilice al peatón, que en su opinión es |

| | |
|---|---|
| bosgarren edukiontzia ipini den arren, birziklatze tasa txikitu egin dela. Beraz, esan liteke eredu honek egiten duen ekarpena murritza dela. Ana Juaristik erantzuten du harremanak ez duela zertan zuzena izan behar zeren eta posible baita datu hori beste zatiki bat txikitu izatetik eratortzea.<br>Emauseko ordezkariak berrerabilpenaren inguruko adierazleak erabil daitezela aldarrikatzen du. Ana Juaristik eskatzen du arlo honi buruzko adierazleen proposamenak egin daitezela.<br>Energia: lehen aldiz jaitsi da energia kontsumoa %1. Azaltzen da gasaren erabilerak piko arraroak egiten dituela (Udalsarea 21eko gainontzeko udalerrietan akats bera agertzen da), beraz ez da adierazle oso fidagarria.<br>CO2: Ana Juaristik azaltzen du 2010eko nahasketarik ez dutela azaltzen du eta datua izango dutenean adierazlea birkalkulatuko dutela. Ana Juaristik azaltzen du Udaletxea emisioen zertifikazioko ISO arau kontagarri batekin lanean diharduela Ihoberekin elkarlanean.<br><br>**6. Norberak lekarkeena**<br><br>Eguzkiko ordezkariak hitza hartzen du:<br><br>Udaletxeko prentsa eskuragarri daukatelako pozik daudela adierazten du. Eskaera horri entzungor egin izan diote gaur arte.<br>Zinegotzi berriari azaltzen dio udaletxeak 2010 urteko laguntzei dagokien 330 €-ko zorra oraindik ordaindu ez diela.<br>Gogorarazten du baita ere IAKen gehiengoak adostutako akordio bat egon zela, aurreko alkateak men egin ez ziona: zezen hilketak Aste Nagusiko egitarauan ez sartzea. Botazio berririk egon ez den neurrian akordioa indarrean dagoela oraindik.<br>Azkenik, Abiadura Handiko Trena Atotxara irits | más importante y sostenible que la propia bicicleta.<br>Ana Juaristi añade que lo ideal sería poder contar con información anual sobre distribución modal, pero que es inviable. No obstante, se muestra de acuerdo con la importancia de contabilizar la distribución a pie, ya que se tendría una imagen mucho más fiel de cómo se reparte la movilidad.<br>Explica que aunque el flujo de vehículos sea un buen índice, se ha tenido que pasar al índice de matriculación debido a que los sensores instalados para medir el flujo de vehículos no están funcionando como debieran.<br>• Agua: civilizar el uso de agua en los hogares es una asignatura pendiente.<br>El incremento de gestión de aguas residuales se debe a que las aguas pluviales canalizadas se tratan en la depuradora.<br>• Residuos: si bien ha bajado un 4% la tasa de recogida de residuos, también ha bajado la cantidad de residuos a reciclar.<br>El representante de Eguzki comenta que númericamente llama la atención que haya habido una bajada continuada del indicador de recogida selectiva cuando resulta que la cantidad que va a vertedero disminuye. El representante de la Fundación Cristina Enea responde que no existe una relación directa, ya que al vertedero también va otro tipo de residuo no doméstico. Al respecto, han solicitado datos disgregados, pero no se les ha facilitado esta información.<br>El representante de Eguzki menciona que a pesar de haber incluído el quinto contenerdor en Amara, la tasa de reciclaje ha disminuido. Por lo tanto, se podría traducir que la contribución de este modelo es escasa. Ana |

| | |
|---|---|
| dadin PSOEk sustatutako adierazpenaren inguruan eztabaidatuko denez, Eguzkiren izenean eskatzen du partido horiei gogorarazteko Renfeko aldirien egoera zein den: Donostiako geralekuen egoera negargarria, gehienek WC-rik gabeak, bertaratzeko arazo larriak dauzkate, batzuk pasabide arriskutsuak dauzkate…Gainera, Amarako geralekuaren eraiketa zintzilik dago oraindik. Laburbilduz, eguneroko erabiltzaileez kezkatu beharko luketela uste du, gogoan izanik aldirietako zerbitzuak Gipuzkoan urtean bidaiari askozaz gehiago mugitzen dituela AHTak urtean mugituko lituzkeen bidaiarien kopuru hipotetikoa baino. Gainera, gai honi buruz Madrilekin hitz egiteak dituen zailtasunen aitzakia ez dela hainbesterako izango eskuduntzak EuskoJaurlaritzara igarotzen diren unetik aurrera.<br>Horregatik, aldirietako zerbitzuaren hobekuntzarako partido guztiekin akordio bat onar dadila eskatzen du.<br><br>Haritzaldeko ordezkariak:<br>Roberto Bermejok txosten bat argitaratu duela dio mugikortasun modu desberdinei buruzkoa eta berau IAKen eztabaidatzea interesgarria litzatekeela eransten du.<br>Planeamenduaren Aholku Kontseiluko IAKen ordezkari gisa, kexu da bere eskaerari oraindik erantzun ez zaiolako. Gai hau IAKaren aurreko aktak islatu zuen eta gobernu berriari jakinarazi nahi dio 400 egun igaro direla Planeamenduaren Aholku Kontseilua azken aldiz bildu zenetik. Gainera, oraindik ez zaio akta igorri.<br>Basolluako merendalekuari dagokionean, leku honetako gas deposituaren kokalekuak nolabaiteko egonezintasuna sortzen dio. Bere aburuz, babestuago egon beharko luke, 8 metrotra iparrekialderantz alegia. | Juaristi responde que la relación no tiene por qué ser directa, dado que es posible que el dato provenga porque haya disminuido otro tipo de fracción.<br>La representante de Emaus reivindica que se incluyan indicadores sobre reutilización. Ana Juaristi solicita que haya propuesta de indicadores al respecto.<br>• Energía: por primera vez ha bajado un 1% el consumo de energía. Se explica que el uso del gas hace unos picos extraños (se registra el mismo fallo en el resto de municipios de Udalsarea 21), por lo que no es un indicador muy fiable.<br>• $CO_2$: Ana Juaristi explica que aún no se dispone del mix de 2010, y que cuando se tenga el dato habrá que recalcular el indicador. Ana Juaristi informa que el Ayuntamiento está trabajando en una norma ISO contable de certificación de emisiones en colaboración con Ihobe.<br><br>**6. Ruegos y preguntas**<br><br>El representante de Eguzki toma la palabra:<br>• Manifiesta que están contentos de tener acceso a la prensa del Ayuntamiento, solicitud que no había sido atendida hasta hoy.<br>• Explica al nuevo concejal que el Ayuntamiento aún no les ha abonado la deuda contraída de 330 € en concepto de ayudas de 2010.<br>• También recuerda al concejal que hubo un acuerdo por mayoría en el CAMA y que el anterior alcalde se saltó: no incluir las matanzas de toros en el programa de Semana Grande. Entiende que al no haber nueva votación, el acuerdo sigue vigente.<br>• Por último, como en el Ayuntamiento se |

| | |
|---|---|
| Eguzkiko ordezkariak gai horri buruzko arautegirik egongo dela aipatzen du. Victoria Iglesiasek iradokizuna jasotzen du.<br><br>Donostiako hiritar gisa PPk Mompaseko pasabideari buruzko proposamen alternatiboaren zai dago eta eskatzen du partidoari jakin araztea eskaera hau.<br><br>Seo/BirdLife-eko ordezkariek:<br>IAKeko partaideei laguntza eskatzen diete adierazpena aurkezteko. Idazkaritza Teknikoak adosten du aktaren zirriborroarekin batera bidaliko dela proposamena.<br>Hiriko zuhaitzen inausketa eta mozteari dagokionean, adierazten dute aurka ez daudela baina garaia egokia ez dela, udaberria-uda habiagintza garaia baita. Jardunera horiek data horietatik kanpo egin daitezela eskatzen dute.<br><br>Bilera amaitzen da. | debatirá en torno a la declaración impulsada por el PSOE a favor de que el Tren de Alta Velocidad llegue a Atotxa, en nombre de Eguzki solicita que se les recuerde a esos partidos cúal es la realidad de cercanías de Renfe: situación deporable de la mayoría de apeaderos en Donostia, que carecen de WC, presentan serios problemas de accesibilidad, algunos con peligrosos pasos… Además, aún está pendiente de construcción el apeadero en Amara. En resumen, considera que se deberían preocupar por los usuarios de todos los días, máxime cuando el servicio de cercanías mueve al año en Gipuzkoa muchísimos más usuarios que la hipotética cifra de viajeros anuales que movería el TAV. Recuerda además, que las excusas de la dificultad de tener que tratar la problemática con Madrid no serán tantas desde el momento en que se trasladen las competencias al Gobierno Vasco.<br>Por lo tanto, solicita que se apruebe un acuerdo con todos los partidos para la mejora del servicio de cercanías.<br><br>El representante de Haritzalde:<br>• Apunta que Roberto Bermejo ha publicado un documento sobre modos de movilidad y que sería muy interesente debartirlo en el CAMA.<br>• Como representante del CAMA en el Consejo Asesor de Planeamiento, se lamenta de que aún no se haya respondido a su petición (cuestión reflejada en un acta anterior del CAMA) y quiere informar al nuevo gobierno que han pasado 400 días desde que el Consejo Asesor de Planeamiento se reunió por última vez. Además, aún no se les ha remitido el acta.<br>• En relación con el merendero de Basollua en |

| | |
|---|---|
| | Ulía le genera cierta inquietud la ubicación del depósito de gas de este emplazamiento. Considera que debiera localizarse más protegido, a 8 metros en dirección noreste.<br><br>El representante de Eguzki recuerda que existirá normativa al respecto. Victoria Iglesias toma nota de la sugerencia.<br><br>• Como ciudadano donostiarra está a la espera de que el PP explique la propuesta alternativa que plantea a la pasarela de Mompás, y solicita que se informe de esta petición al partido.<br><br>Las representantes de Seo/BirdLife:<br>• Piden apoyo a los componentes del CAMA para presentar el manifiesto. La Secretaría Técnica acuerda que junto con el borrador del acta se remitirá la propuesta.<br>• Con relación a las podas y talas en los árboles de la ciudad, manifiestan que no están en contra, pero que la época no es la correcta, ya que primavera-verano es periodo de anidación. Solicitan que tales actuaciones se realizan fuera de estas fechas.<br><br>Finaliza la reunión. |